

Aroa Francés Mendiá

Aniturri BHI (Vitoria)



MINA ETA BIZIAREN BIDAIA

Urte bat igaro da jada. Urte bat bidai luze hau hasi zenetik, nire bizitza hankaz gora jarri zuena. Denbora motel igaro da, irtenbiderik gabe kale kantoi batean egongo banintz bezala. Ateratzeko modu bat bilatu, biana ezin, ez baitago. Geroz eta gutxiago falta da dena bukatzeko, beste bidai berri bat hasteko.

Bakarrik sentitzen nai, jendez inguratuta nagoen arren. Ingurura begiratu eta amona ikusten dut. Bere begi urdin politak malkoz bustiak daude. Itsasoa ekartzen didate gogora, Donostian egon ginenekoa, txikia nintzela, dena arrosa kolorekoa zenean. Zenbat aldatu diren gauzak.

Amonari besarkatuta ama dago. Bere aurpegi lasaia begizulo handiek estaltzen dute. Urte bat darama lo egin gabe, sufrimenduzko urte luze bat.

Atea ireki eta aita azaltzen da, besoetan Elaia duela. Honek liburu bat Dakar, nahiko potoloa. Nire ondoan gelditzen da nire ahizpa eta liburua erakusten dit: familiaren argazki albuma da. Ireki eta irudiak begiratzen ditugu. Orriak pasa ahala geroz eta min handiagoa sentitzen dut barruan. Argazkietan irribarrez ageri gara, gure aurpegiak poza adierazten dute. Orain dela urte bate z ditudala irribarrez horiek ikusten. Geroz eta beltzagoa bihurtzen ari da dena, eta geroz eta urrunago gaude irtenbide batetik. Elaia oso txikia da dena ulertzeko, baina gauza asko antzematen ditu. Badaki gauzak ez doazela ondo, baina ez du imajinatzen lasiter dena bukatuko dela. Uste baino lasterrago, gainera.

Nire mina hazten doa, tsunami baten antzera. Nire begietara heldu eta dena bustiko da, dena suntsitu. 14 urte pikutara joango dira, mila sentimendu apurtuko dira, mila bizipen bukatuko dira.

Geratzen den esperantza gutxia busti eta desegindo da, paper baten moduan.

Gutxi falta da, oso gutxi. Bitartean aita eta ama besarkatuta daude, Madrilen egon gineneko argazkian bezala. Barrezka ari dira irudian, pozez negarrez. Orain ere negar egiten ari dira, baina ez dira poza adierazten duten malkoak. Dena bukatzea nahi eta nahi ez duten malkoak dira.

Berrito begiratu dut Elaia. Bere urrezko ileak kolorea galdu du, eta bere begi berdeek ez dute ezer adierazten. Ume bat da, ez du hau merezi! Geroz eta okerrago dago dena.

Tsunamiak itsasertzera heltzear dago. Nire biziaren babesten duen harresia suntsitu eta dena akabo. Segunduak motel igarotzen dira, denbora geldituko balitz bezala.

Albumeko azkenengo argazkira heldu da Elaia. Atzo atera zigutena. Hura ikusi eta malko bat irristatzen da nire ahizparen masailetik. Nire ilea faltan botatzen du. Duela urte bat erori eta ez da berrito hazi. Amonaren ahotsa entzuten dut, Elaiari esanez "Ez dugu ikusten ikusten duguna, baizik eta garena". Elaiak begiratu egiten nau. Irribarre txiki bat egiten du aspaldiko partes.

Nire bidaia bukatzear dago. Elaiak nire eskua heltzen du, tiraka, badakielako poliki-poliki banoala.

Tsunamiari metro gutxi falta zaizkio dena suntsitzeko. Dena bukatuko da, azkenean. Mina sentitzen dut, baita biziaren ere, edo bizi falta, eskutik doaz. Minbizia, alegia.

Olatu erraldoiari bost metro falta zaizkio, lau, hiru...

Ahizpak besarkatu egiten nau eta nire aurpegia malkoz bustitzen du.

Bi metro, bat...

"Maite zaitut" xuxurlatu eta begiak ixten ditut, itsasoa eta harresiaren arteko zama ez sentitzeko nahian. Baina jada berandu da. Nire bizitzaren olatuetan kulunkatzen nagoela, lasaitasuna antzematen dut. Urte bat pasa da sentitzen ez dudanetik.

Orain bai, bidaia bukatu da. Mina eta biziaren bidaia. Minbizia.